

1. GAIA: DISKRIMINAZIOA

1.1. Esanahia

Bi zentzu:

- **Jatorrizko zentzua:** bereiztea edo ez bereiztea esan nahi du. Termino neutroa da, ez du ez konnotazio positiborik ez negatiborik
- **Gaur egun:** gutxiespenezko konnotazioak "diskriminatzea": aurreiritzia, intolerantzia... zentzu negatiboak

Fenomeno soziala da: kontzeptualizazioa ez da mugatzen

1.2. Diskriminazio motak

Zuzena: baldin eta arrazoiz kontra

Zeharkakoa: irizpide ez-definitzailea erabiltzen denean, baina horrek talde horri mesede ez egitea dakar.

Nahita egindakoa: nahita eragiten den desadostasuna

Inkonszientea: kasualitatez edo aleatorioa izan den desadostasuna

2. GAIA: BERDINTASUN KONTZEPTUAREN BILAKAERA

2.1. Kultura juridiko hegemonikoa

3 ideietan oinarritzen da: ziurtasun juridikoa, formalismoa eta filosofia liberala.

Ziurtasun juridikoa: positibismo juridikoa. Botere politiko subiranoak sorturiko arauak dira (Zuzenbidea).

Formalismoa: araua baliozkoa. Autoritate publiko legitimo, subirano eta eskudunak emana bada.

Filosofia liberala: Estatuak oinarrizko eskubideak aitortu eta bermatu behar ditu.
Eredua: Frantziar Iraultzako Aldarrikapena

2.2. Kultura juridiko hegemonikoaren hausturak

Postitibismo juridikoaren printzipioa apurtu egiten da.

Zuzenbidearen ziurtasuna apurtu egiten da: interpretazioari uzten zaio lekua eta interpretazio batzuk autoritatez jantzita egongo dira eta besteak ez.

Berdintasun politikoarekin bukatu egiten da: berdintasun materialerantz ibilbidea (Espainiar Konstituzioaren kasua). Honekin, zuzenbide antidiskriminatzailearen sorrera ematen da.

2.3. Diskriminazioa eta sexu-genero sistema

Jurisprudentiaren papera eta sexu-genero sistema: zeharkako diskriminazioa.

- Sexu-genero sistemaren efektu perbersoa
- Sexu-genero sistemaren ondorioa: emakumearen diskriminazio estrukturala
- Ezberdintasunak naturalizatzea

3. GAIA: TEORIA FEMINISTA

3.1. Ilustrazioa, Rousseau eta Emakumea

Feminismoa garatuz joan den eta egoera berrietara moldatu den fenomeno da. Garai guztietan izan duen ezaugarria, AHALMEN EMANZIPATZAILEA erakutsi duen mugimendu soziala izatea. Hau da, gizon eta emakumeen arteko harremanak aldatzeko helburua izan duen giza mugimendua izan dela.

Teoria feministaren sorrera ILUSTRAZIOAN aurkitu genezake. Garai hau gizonen ikuspegitik bakarrik gidatuko da, emakumeak Ilustrazioaren proiekturik kanpo geldituko dira. Ondorioz, Ilustrazioko emakumeek Ilustrazioak erreibindikatzen zituen printzipio unibertsaletan emakumearen barneratzea eskatzen dute. Arrazoien unibertsaltasuna, aurreiritziengandik emantzipatzea, berdintasun printzipioaren aplikazioa eta aurrerapenaren ideia galdatzen dira.

Zein da emakumearen posizioa gizarte honetan:

Rousseau izango da garaiko pentsalaririk arrakastatsuenen. Emakumeen izaera edo jatorriari buruzko teoria lantzen du. Emakumeak kontratu politikotik kanpo gelditzen dira, eta ondorioz, herritar kontzepturik kanpo ere bai. Hemendik dator ilustrazioak eskubideen unibertsalismo faltsua lantzen duenaren ideia.

Rousseauren planteamenduetan, gizon eta emakumearen bilakaera historikoa desberdina izan da. Hasera batean, ez dago gizakien talderik, eta gizakia isolatuta bizi da. Une horretan, gizona eta emakumea berdinak dira, ez dago desberdintasunik. Denbora aurrera goazen ahala, gizakiak taldean biltzen dira, gizarte mailan antolatzen dira, familia sortzen da, harremanak hasten dira eta desberdintasunak hasten dira.

Ondorioz, gizon eta emakumeen arteko DESBERDINTASUN NATURALA ematen da, laneko sexu zatiketagatik, bakoitzak bere eginkizun propioak dituelako. Beraz, emakumearen FUNTZIO SEXUAL ETA ERREPRODUZITZAILEAREN ondorioz, desberdintasuna justifikatzen da. Planteamendu honetatik ateratzen den ondorioa: gizona autonomoa da eta emakumea ez.

Rousseau-ren planteamenduetan, naturala da FAMILIA PATRIARKALA, hau da, emakumearen espazioa edo eremu naturala, etxea da, espazio pribatua. Eta dependentzia natural bat sortzen da gizonarekiko. Gizona da kanpora aterako dena, kultura lortzera eta esfera publikoan jardutera.

Bi kontratu tipotaz ari gara:

- 1) Espazio publikoan parte hartzeko kontratua: kontratu demokratikoa, berdinen artean gauzaturikoa, kontratu soziala.
- 2) Espazio pribatuko kontratua: menpekotasuneko kontratua, sexua oinarrian duena, kontratu naturala.

Guzti honek desberdintasun naturala suposatzen du. Ondorioz, desberdintasun politikoa jaioko da.

Rousseau-k demokrazia eta berdintasuna aldarrikatzen ditu gizonen artean, baina emakumeekiko naturalista da. Emakumeei beraien posizio publikoa ukatzen zaie. Baina, beraiena den espazioan, eremu pribatuan, jarrera aktiboa eta boteretsua izateko eskatzen zaie.

Kontraesanak kontraesan, garbi gelditzen dena emakumeak paper publikoa limitatuta dago eremu pribatuan: ez dira herritarrak, menpeko izateko jaioak dira. Teoria honi jarraituz, emakumeak menpekotasuna eta obedientzia landu behar ditu. Hau da, esan daiteke emakumeak izaera instrumentala dauka. Aldiz, gizonak, norbanako izaera eta indibidualismoa landu beharko lituzke.

Ilustrazioaren aldarrikapen guztiak gizonezkoei zuzentzen zaizkie. Horien artean esanguratsuen "Ausartu pentsatzen" aldarrikapena da, nola ez, gizonei zuzendurikoa. Emakumeak ez dauka pentsatzeko gaitasunik eta beraiei bidaltzen zaien kontsigna beste bat izango da: emakumearen jarrera iritzi publikoak beragatik esango duena kontutan izan beharko du.

Hau da, gizonak bere barneko izaera atera behar du, eta emakumeak bere izaera izkutatu eta moraltasuna babestu behar du.

Rousseau-ren ereduarekin bat ez datozen ideiak nabarmentzen hasten dira. Ilustrazioaren barnean emakume desberdin baten figura agertzen da. Etxeko esparruan egotea kuestionatzen duen burgesiako emakumea da.

Emakume hauek eremu publiko eta pribatuaren arteko espazioa sortzen dute, literatura eta politika saloien bidez. Espazio hau erdibideko espazio bat da, emakumeek antolaturikoak eta gizonen partehartze intelektualarekin (filosofoak, idazleak...). Saloien fenomeno bezala ezagutu zen.

Rousseau kritikoa izango da emakumeen filosofia berri honekin. Baina, beste pentsalari batzuk (Voltaire, Montesquieu), alde agertu ziren eta are gehiago, UNIBERTSALISMO ETIKOA defendatuko dute: justizia, askatasuna eta berdintasuna gizaki guztientzat berdina dira. Hau izango da feminismoaren galdakizun nagusia.

Horrela, XIX. mendeko feminismora iristen gara. Garai honetako feminismoa liberal edo moderatua izango da. Emakumearen jardura eredu patriarkalaren barnean gauzatzen da, menpekotasun sistema puskatu gabe. Klase burgeseko emakumeek osatzen dute eta sisteman akomodatzen den feminismo bat dela esan daiteke.